

Baloratzeko proposamena:

Gure proiektuak moda-industriak sortzen duen ingurumen-arazoari erantzuten dio, material birziklatuekin egindako arropa eskainiz. Jakina da moda-sektorea kutsadura, baliabideen soberakinak eta hondakin kopuru handien eragile nagusietako bat dela. Gaur egun, kontsumitzaile askok arropa jasangarria erosi nahi dute, baina askotan ez dute aurkitzen prezio eskuragarria, kalitate ona eta diseinu erakargarria aldi berean eskaintzen duen aukerarik. Testuinguru horretan, gure proiektuak behar horri erantzuten dio, ingurumenarekiko errespetuz ekoiztiko arropa erabiltzeko erraza, eroso, iraunkorra eta eguneroko bizitzarako egokia eskainiz.

Gure balio-proposamena jasangarritasuna, kalitatea eta diseinua bateratzean oinarritzen da. Arropa birziklatutako materialekin ekoizten dugu, baliabide naturalen kontsumoa murriztuz eta hondakinak berrerabiliz. Horrez gain, gure produktuak erosoak dira, erabiltzailearen ongizatea lehenengo irizpidea bezala, eta kalitate handikoak, denboran zehar egoera onean mantentzeko diseinatuak. Horrela, kontsumo azkarra sustatu beharrean, iraupen luzeko arropa eskaintzen dugu, ingurumen-inpaktua asko murriztuz.

Lehiakideengandik bereizten gara gure ekoizpen-eredu arduratsuagatik eta enpresa barruan denok ditugun balio etikoengatik. Ez dugu soilik arropa ekoizten, baizik eta ingurunea zaintzen duen eta gizarteari ekarpena egiten dion proiektu bat garatzen dugu. Gure ekoizpen-prozesuetan, ur kutsatuen garbiketa sustatzen dugu eta baliabideen erabilera arduratsua bermatzen dugu. Gainera, garraiorako energia berriagarriak erabiltzen ditugu, gure kutsadura ekologikoa ahalik eta gehien murrizteko.

Gainera, guretzat garrantzitsua da bezeroek jakitea gure arropa nola eta non egiten den. Horregatik, informazio argia ematen dugu ekoizpen-prozesuari buruz. Horrela, konfiantza sortzen dugu eta kontsumitzaileek erosketa arduratsuagoa egin dezakete.

Gizartearen ikuspegitik, gure proiektuak balio handia sortzen du. Langileentzat lan-baldintza onak eta seguruak bermatzen ditugu, justizia soziala eta berdintasuna sustatuz. Uste dugu arropa ez dela luxu bat, baizik eta pertsona guztien funtsezko eskubidea. Horregatik, gure prezio-politika eskuragarria da, edonork gure produktuak erosteko aukera izan dezan, maila ekonomikoa edozein dela ere. Kalitatea eta jasangarritasuna ez ditugu gutxi batzuen pribilegio bihurtzen, baizik eta gizarte osoarentzat eskuragarri egiten ditugu.

Azken finean, gure proiektuak moda ulertzeko modu berri bat proposatzen du: ingurunea errespetatzen duen, pertsonak erdigunean jartzen dituen eta kontsumo arduratsua sustatzen duena. Bezeroak guri ordaintzeko prest egongo dira, ez dutelako soilik arropa erosten, baizik eta balioetan oinarritutako marka baten aldeko hautua egiten dutelako. Gure leloa argia da eta gure proiektuaren funtsa laburbiltzen du: arropa funtsezko eskubidea da.